



SARE SOZIALEN ERABILERA

9. Txostena

2020ko Maiatza

SARE SOZIALEN ERABILERA ETA FIKZIOZKO EDUKIEN BALORAZIOA

Sare sozialen erabilera unibertsala da gazteen artean. Zeregin eta funtzio guztietarako erabiltzen dituzte, entretenitzeko, harremanetarako eta baita informazioa jasotzeko ere. Begi aurrean daukazun txostenean jasotzen diren datuen bidez, sare sozialen erabilerari buruzko zehaztasunak ezagutu nahi izan dira. Katgoria orokor horren baitan biltzen diren euskarri eta plataformek, ez baitute eragin, erabilera edota arrakasta berbera gazteengan.


1. Ohar metodologikoak

Dokumentu honetako datuak Ikusiker Paneleko kideei egin zaien inkestetatik jasotzen dira. Ikusiker Panela Nor ikerketa-taldeko kideek sustatutako Applika ikerketa-proiektuaren barruan kokatzen da (US17/40). Applika Ikerketa-proiektuan NOR eta EITB ari dira lanean UPV/EHUko ikasleen ikus-entzunezko kontsumoak aztertuz. 2020ko maiatzaren 6a eta 14a bitartean, galde-sorta luzatu zitzaizen UPV/EHUko bost jakintza arletako, hiru kanpusetako eta hogeit hamar gradu ezberdinetako ikasleei. 600 baino panelkide baino gehiagok hartu dute parte inkestaldi honetan.

2. Sare sozialen erabilera

Zalantzarik ez dago sare sozialek berebiziko lekua bereganatu dutela pertsonen arteko harremanak ehuntzerakoan. Gailu elektronikoez eta horretarako propio eginiko programa eta aplikazio informatikoez baliatuta handia da sare sozialak erabiltzen dituzten gazteen kopurua. Ikusiker Panela osatzen duten kideen artean ere, altua da sare sozial hauen irismena eta denbora dedikazioa. Sare sozialen erabilera eta horren gaineko bizipena eta zergatiak aletuko dira ondoko pasarteetan. Sare sozial ohikoenen irismena zenbaterainokoa den aztertuko da lehenengo. Horretarako, bakoitzari eskainitako denbora zenbatekoa den galdetu zaie panelkideei.

1. Irudia - Zehaztu mesedez, egunerokoan zenbat denbora dedikatzen diezun halakoei:



Iturria: Ikusiker, 2020ko maiatza

Lehenengo irudian ikus daitekeenez, Whatsapa, Youtube eta Instagram dira gazteengana gehien heltzen diren sare sozialak. Ehuneko laurogeita hamarretik gorakoa da sare sozial hauen irismena. Hala ere egungo kontsumoan norbanakoaren garrantzia kontuan hartuta, besteak ez dira baztertzeko modukoak. Izan ere, orain gutxira arte agertzen ez zirenak, TikTok esaterako, nahiz eta kuantitatiboki presentzia gutxi izan, izen propioa hartu eta gorako joera bat markatzen dutela dirudi.

Ikasleek egiten duten plataforma ezberdinen erabilera, Whatsapp da ohikoena. Inkestatutako ikasle ia guztiek (% 99,9), erabiltzen dute bere egunerokoan, eta online bidezko mugikor mezularitzaren erabiltzaile gehienek 30 eta 90 minutu arteko tarte eskaintzen diote. Denbora erabilera tarte hauen artean ikasleen erdia kokatzen da (%50), eta hau baino tarte handiagoak eskaintzen dizkieten ikasleak % 31,5 dira, bereziki 90 minutu eta 3 ordu artean kokatzen dira hauek (% 22,3). Whasapean hiru ordutik gora ematen dituzten gazteak % 9 dira. Eta 15 eta 45 minutuko denbora tarte laburrak ematen dituztenak aldiz, % 18,6.

Youtuberen kasuan, ikasleen % 96 dira honen erabilera egiten dutenak. Plataforma honi eskaintzen zaion denboran sakabanaketa handia antzeman daiteke. 15 minututik hasi eta 90 minutu arteko kontsumoan kokatzen diren emaitzetan, inkestatuak oso sakabanatuak ageri dira, denbora tarte ezberdinek ehuneko antzekoak pilatuz (% 59,8). Proposatzen diren lau denbora tarteetan pisua antzerako da, % 15 ingurukoa kasu


guztietan. 90 minututik gora eskaintzen dizkioten ikasleak % 28 dira, eta horietatik % 20,3 90 eta 3 ordu artean aurkitzen da.

Instagram sare soziala inkestatuen gehiengo zabal batek erabiltzen du (% 92,6), eta datuei erreparatuz, esan daiteke ikasleek aurreko plataformetan baino denbora gehiago ematen dutela bertan. Izan ere, ikasleen gehiengo batek, % 21,8k 60 eta 90 minutu arteko tarteak eskaintzen dizkio. Era berean, ikasleen % 61ek 30 minutu eta 2 ordu arteko denbora dedikatzen dio honi. Instagramen bi orduetik gorako tarteak ematen dutenak % 19,2 dira, eta 30 minututik beherako kontsumoa dutenak berriz, % 12,7. Hortaz, Instagramek aurreko sare sozialek baino erabiltzaile gutxiago baditu ere, ikasleek denbora tarte luzeagoak eskaintzen dizkiote.

Egunerokoan, Twitter erabiltzen duten EHUko ikasleak % 52,9 dira, aurreko sare sozialekin alderatuz gero askoz ere gutxiago. Bertan, denbora tarte laburrak dira nagusi, ikasle erabiltzaileen % 23, 15 eta 30 minutu bitarteko tarteak ematen baititu. Gainontzekoen artean, % 23,8k 30 minutu eta 2 ordu bitarteko denbora eskaintzen dio honi, eta Twitterren bi ordu baino gehiago ematen dituzten ikasleak % 6 dira.

Tik Tok eta Facebook bezalako aplikazioek arrakasta gutxi dute unibertsitateko ikasle hauen artean, % 85,8 eta 91,3k erabiltzen ez dituela adierazi du, hurrenez hurren. Hala ere, aipatu beharra dago Facebook gazteen artean arrakasta galtzen joan den sare sozial bat izan den bitartean, TikTok gazteen erabileran agertu berria den plataforma bat dela eta ondorioz, izan dezakeen garapenaren nondik norakoa ezagutzen ez badugu ere, indartsu hasi dela dirudi.


2. Irudia – Sare sozialen erabiltzailea bazara, zer iruditzen zaizu: eskaintzen diezun denbora da...?



Iturria: Ikusiker, 2020ko maiatza

EHUko ikasleen sare sozialen denbora erabileraren datuak biltzeko asmotan dugu aurreko grafikoa. Sare sozialen erabilera gustatuko litzaiekeena baino denbora gutxiago dela adierazi duten ikasleek ez dute apenas garrantzirik, inkestatuen % 2,1 soilik baitira. Erdibidean kokatu eta eskainitako denbora egokia dela deritzotenak % 23,2 dira. Sare sozialei gustatuko litzaiekena baino denbora gehiago dedikatzen diotenen kopurua da, zalantzarik gabe zabalena (% 74,7). Horien artean, % 44,2k nahiko lukeena baino denbora apur bat gehiago ematen duela dioten bitartean, % 30,5k gustatuko litzaiekeena baino askoz denbora gehiago eskaintzen die sare sozialei.

3. Irudia – Sare sozialetako erabiltzailea bazara, zehaztu mesedez, zertarako erabiltzen dituzun?



Iturria: Ikusiker, 2020ko maiatza

Sare sozialak erabiltzeko arrazoiak biltzen ditu goiko taulak. Lehenengo begiradan, sare sozialek kontsumitzeko motibo aukera zabala aipatzekoa da. Gazteek hamaika gauzatarako baliatzen dituzte sare sozialak, asko eta asko aisialdiarekin lotutakoak dira. Lagun eta ezagunekin harremanetan eta denbora pasarako aukerak ditugu erabileraren arrazoi nagusien artean (% 80). Lehenaren kasuan, inkestatuen erdia baino gehiagok (% 52) adierazi du erabileraren zergatia askotan horixe dela, % 33,8 batek berriz, arrazoi horrengatik egiten du beti. Denbora pasari dagokionez, % 55,7k dio hau askotan izan ohi dela erabileraren kausa, % 24,3k berriz beti erabiltzen du helburu horrekin.

Era berean, maiztasun desberdinarekin bada ere, informazio bildu eta eguneratua egoteko helburuarekin sare sozialak erabiltzen dituztenak gehiengoa dira (% 98,2). Zeregin horretan, inkestatuen % 44,8k sare sozialen erabilera askotan egiten duela dio, eta % 33,2k batzuetan, beti berriz, % 8,5k.

Eduki barregarrien kontsumorako euskarri modura ere arrakastatsuak dira sare sozialak. Ikasleen % 39k askotan umorezko edukietara gerturatzeko bide gisa erabiltzen ditu eta batzutan egiten dutenen kopurua herenetik gora kokatzen da (% 35,3).

Bideo eta irudiak partekatzeko erabileraren sarritasunean sakabanaketa handiagoa dago aurreko arrazoiekin alderatzen badugu. Ikasleen % 26,1k erabilera honek bultzatuta askotan egiten duela dioen bitartean, beste %34,9 eta %28,3k batzuetan edo oso gutxitan egiten du, hurrenez hurren.

Panelkideek sortutako edukia erakusteko tokia ere badira sare sozialak. Gehiago ala gutxiago, norbere edukien erakusleihen ere bihurtzen dituzte (% 80,5). Erdiek baino gehiagok (% 46,4) batzutan, askotan edo beti erabiltzen dituzte zeregin horretan. Era berean, % 37,2k oso gutxitan egiten du hauen erabilera norberak sortutakoak erakusteko asmoarekin..

Erosi nahi dituen produktuen inguruan gehiago jakiteko sare sozialen erabilera probesten du panelikideen herenak inguru (% 32,2). Zergati hau tarteko, oso gutxitan sare sozialen erabilera egiten duten gazteen portzentajea % 28,1ekoa da inoiz egiten ez dutenena berriz, % 23,8koa.

Iritzi edo ikuspuntuak plazaratzea tarteka eta gutxitan egiten den ekintza bat da aplikazio ezberdinetan. Ikasleen % 30 eta % 34k hurrenez hurren, batzuetan edo oso gutxitan egiten baitu eta % 26,3 dira erabilera hau ematen ez diotenak.

Jende berria ezagutu edo ligatzeko arrazoiak ere presente daude sare sozialen erabileran. Maiztasun erlatiboarekin egiten diren erabilerak lirateke. Lehenaren kasuan % 65,7k inoiz jo du arrazoi hau medio sare sozialatera, ligatzeko berriz gehiago dira inoiz erabili dutenen kopurua (% 51,9) erabili ez dutenena baino (% 49,1).